

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Honako mendi hauek mugatu eta mugarrizteko espedientearen jendaurreko erakustaldia eta haren aurkako erreklamazioak egiteko aldia irekitzea, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan eta Mendien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera: onura publikoko 33, 40 eta 51 mendiak, "Garondo", "Mastondo eta Rugarai" eta "Peregaña" izenekoak, hurrenez hurren, Menagarai-Beotegi herriarenak, eta Aiarako udalerrian daudenak

Burutu direlarik onura publikoko 33, 40 eta 51 mendiak, "Garondo", "Mastondo eta Rugarai" eta "Peregaña" izenekoak, hurrenez hurren, Aiarako udalerrian daudenak, behin-behinekoz mugatu eta mugarrizteko lanak, honen eranskinean zehazten diren mugen arabera, eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan (Mendien Foru Araua) eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Erregelamenduko 120. eta 121. artikuluetan ezarritakoaren bat etorritik, ezagutzera ematen da hasten dela mugaketa eta mugarrizte espedientea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarraren lokaletan (Kontzeju Aretoa, San Pedro auzoa, z.g. 01477-Menagarai) ikusteko aldia, interesa dutenek hura aztertu ahal izan dezaten iragarki hau argitara eman eta hurrengo hamabost egun baliodunetan.

Era berean, iragarki hau argitaratu ondorengo hogeita hamar egunetan, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz) edo Aiarako udaletxean.

Mugatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarriztatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten direla, alde aurreko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

Menagarai herriarena den “Garondo” izeneko onura publikoko 33 mendiaren mugak

Iparraldean: jabetza partikularrak.

Ekialdean: jabetza partikularrak.

Hegoaldean: jabetza partikularrak.

Mendebaldean: Llantenoiko banalerroa.

Menagarai herriarena den “Mastondo eta Rugarai” izeneko onura publikoko 40 mendiaren mugak

Iparraldean: Gordexola eta Okondoko banalerroa.

Ekialdean: Zuhatzako jabetza partikularrak.

Hegoaldean: jabetza partikularrak.

Mendebaldean: jabetza partikularrak eta Lantenoko banalerroa.

Beotegi herriarena den “Peregaña” izeneko onura publikoko 51 mendiaren mugak

Iparraldean: jabetza partikularrak.

Ekialdean: jabetza partikularrak.

Hegoaldean: jabetza partikularrak.

Mendebaldean: Erretes Lantenoko mendia.